



NOBELETEN LITERATURA LEHIAKETA

Deialdiaren helburua

Lehiaketa honen helburua aurkeztutako literatura lan hoberenak saritzea da, eta, honez gain, gure herrian tradizio gutxi duen *novelette* edo kontakizun luzea bezalako literatura genero bat sustatzea, zeina, itzulpenerako termino egoki baten faltan, ‘nobeleta’ izendatu dugun.

Parte-hartzea

Lehiaketan parte-hartzea *Tartalo. Fantasiakoaren I. Astea Arteetan Gasteizen* web orriaren bitartez egingo da.

Partaide bakoitzak nobeleta bakarra aurkeztu ahalko du lehiaketan, euskaraz zein gazteleraz. Erabiltzaileek nobeleta honako datu hauekin batera bidali beharko dute: izen-abizenak, telefonoa, posta elektronikoa helbidea eta posta-kodea. Datuak egiazkoak eta egiaztagarriak izan beharko dira, HEVENDAY lehiaketaren irabazleekin harremanetan jarri ahal izateko. Lehiakideen nortasuna dokumentu ofizialekin egiaztatu beharko da. Lanak bereziki prestatutako posta elektronikoa helbidera bidaltzerakoan, partaideak lana originala eta argitaragabea dela aitortzen du, eta ez dela beste lehiaketetan saritua izan. Behin lehiaketa bukatuta, ez da inolako korrespondentziarik izango partaideekin, ez eta aurkeztutako lan originalak itzuliko.

Antolatzaileek ez dute inolako legezko erantzukizunik aurkeztutako lanen eta hauen edukien gainean.

Aurkeztutako lanen bete beharreko baldintzak

Nobeleten gaiek fantasiakoan izan beharko dute jatorria (zientzia fikzioa, fantasia, errealismo magikoa, gotikoa, etab.).



Lanek, euskaraz nahiz gazteleraz idatziak, honako baldintzak bete beharko dituzte: **7500 eta 18.000 hitz bitarteko luzera**, testu justifikatua, eta Times New Roman letra-tipoa 12pt tamainuan eta 1.5eko lerroartekoarekin. Dokumentua DOCX formatuan bidali beharko da.

Gainera, DOCX fitxategiaren izen bera duen (nobeletarena, alegia) PDF formatuko fitxategi batean aurreko atalean zehaztutako datu pertsonalak gehituko beharko dira.

Aurkezteko epea eta lekua

Nobeletak honako posta elektronikoko helbidera bidali beharko dira: noveletas@tartalogasteiz.com Aurkezteko epea **2023ko uztailaren 10ean** amaitzen da.

Sariak

Behin epea amaituta, epaimahai espezializatu batek aurkeztutako lanak baloratu eta honako sariak emango ditu:

-Sari nagusia (nobeleta hoberena): ziurtagiria + lana argitaratuko zaio Nimbo argitaletxearen bitartez beste artisten eta akademikoen lanekin batera + 500€.
Zenbateko honi indarrean dagoen araudiak zehazten duen zerga atxikipena kenduko zaie.

-Bigarren saria: ziurtagiria + lana argitaratuko zaio Nimbo argitaletxearen bitartez beste artisten eta akademikoen lanekin batera.

Epaimahaia

Epaimahai bakar batek baloratuko ditu aurkeztutako lanak.

Epaimahaia literatura munduan sona duten pertsonak, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakasleek eta HEVENDAY-eko kideek osatuko dute.



Lehendakaritza Hevenday-eko kide batek edo honek izendatutako beste norbaitek beteko du.

Epaimahaia osatzean errespetatu egingo da generoaren egungo ikuspegiak eskatzen duen parekotasuna.

Balorazioa eta saria emateko erabakia

Lanak baloratzean, epaimahaiek honako irizpide hauek hartuko dituzte aintzat, besteak beste:

- Gaiaren edo edukiaren originaltasuna.
- Testuaren literatura kalitatea.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta kideen gehiengo soilaz hartuko da. Epaimahaiak ebatziko ditu deliberazioak egitean sor daitezkeen gorabehera guztiak.

Epaimahaiak hala erabakiz gero, sariak eman gabe utz daitezke.

Erabakia 2023ko azaroaren 6an (astelehena) jakinaraziko da (oraindik erabakitzeke)-n egingo den ekitaldi batean eta Tartalo-ren web orrian argitaratuko da.

Jabetza intelektual

Hirugarrenen eskubideak errespetatzeko eta lehiaketaren garapenean egoera irregularrak ekiditeko asmoz, Antolakuntzak honakoa adierazten du:

1. Lehiaketa honetan heuren lana aurkezten dutenak izango dira hauen edukiaren erantzule legalak.
2. Antolatzaileek ez dute inolako legezko erantzukizunik aurkeztutako lanen eta hauen edukien gainean. Gainera, lan irabazleei dagokienez, lehiaketan parte-hartzeak esplotazio-eskubide intelektual eta industrialak (hauen zatiak barne) HEVENDAY-en alde dohan uztea suposatuko du,



inolako denbora mugarik gabe eta indarrean dagoen legediak ahalbidetzen duen epe luzeenean zehar.

3. Aurkezten diren lanek originalak izan behar dute (parte hartzaileak izango dira egitate horren erantzule bakarrak, eta ezin izango dute inola ere erantzukizun hori, ezta modu subsidiarioan ere, antolatzaileen, haien enpresa taldeen edo hirugarrenen gain utzi, marrazkien, lanetan jasotako zati grafikoen eta abarren egileak barne. Bermatutako kaltegabetasunarekin bat etorritz, parte hartzaileak izango dira erantzule bakarrak lanen edozein alderdiren gaineko edozein eskubideren titularren aurrean.
4. Laburbilduz, edozein erreklamazio antolatzaileen, haien enpresa taldeen edo lehiaketarekin zerikusia duen beste edozein erakunderen aurka egiten bada, erreklamazioa eragin duen lana bidali duten parte hartzaileek salbuetsi egingo dituzte antolatzaileak, enpresa taldeak eta/edo lehiaketarekin zerikusia duen beste edozein erakunde lana erabiltzeak dakartzan erantzukizunetatik.
5. Era berean, lana originala izanik ere hirugarrenek legez erreklamatzeko dituzten jabetza eskubideak dituzten lanen egileak izango dira antolatzaileek, haien enpresa taldeek eta/edo lehiaketarekin zerikusia duten erakundeek jasotzen duten edozein erreklamazioaren gaineko erantzule bakarrak, eta salbuetsi egingo dituzte lana erabiltzeak dakartzan erantzukizunetatik.

Irabazleei sariaren berri ematea

Antolatzaileak posta elektronikoz edo telefonoz jarriko dira irabazleekin harremanetan sarietako bat lortu dutela jakinarazteko. PDF fitxategian emandako helbide elektronikoaren edo telefono zenbakiaren bidez jarriko dira harremanetan irabazleekin.

Irabazleen izenak Tartalo-ren web orrian argitaratuko dira, baita bertako hedabideetan ere. Saria eman ahal izateko, lehiaketaren antolatzaileek mezu



elektroniko bana bidaliko diete irabazleei, eta, gehienez ere, hiru telefono dei egingo dituzte. Astebeteko epean hiru deietako bakar bati ere erantzuten ez bazaio eta bidalitako mezu elektronikoaren erantzunik jasotzen ez bada, irabazleak galdu egingo du saria erreklamatzeko eskubidea eta saria banatu gabe geratuko da.

Beste batzuk

Edozein kontsulta egiteko, lehiaketaren antolatzaileekin jar zaitezke harremanetan, helbide elektronikoa honen bidez: noveletas@tartalogasteiz.com

Antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik hartzen (a) datak aldatzeagatik edo (b) irabazleari saria jasotzea eragozten dion edozein inguruabar pertsonal, administratibo edo burokratiko aldi berean gertatzeagatik.

Lehiaketa honetatik erator daitezkeen auzigai guztietarako, bai antolatzaileek bai parte hartzaileek berariaz egiten diote uko legokiekeen beste edozein foruri, eta beren-beregi jartzen dira Gasteizeko epaitegi eta auzitegien mende.